

Trikimailuak

LANDAREAK gure onurarako lantzen ditugunean, dena delakoaren xerkan, helburu ditugun etekinen babeserako bide ugari da. Produktu kimiko pozoitsuetatik urrun, gero eta hedatuagoa dago gai naturalen erabilera.

Izurritea eragiten duen intsektuari bera akabatuko duen aurkaria aldameanean jartzea da bide bat. Aurkari batzuek izurri-gilea zuzenean jan egingo dute. Beste batzuek izutu eta uxatu egingo dute, geurean nahi ez ditugunak auzokoaren landareetara bota. Hurrengo belaunaldiak haztea eragotzi eta izurriaren katea eten duenik ere bada. Horietako batzuek, adibidez, hazteko toki hoberik ez eta izurria eragiten duenaren gorputzaren barruan ziztatzeko dituzte bere ondorengoak sortuko dituzten arrautzak... Bai bihurriak!

“Gure” landareetan kalteak eragiten dituzten intsektuak ez dira ez jainkoaren hurrengoak. Kontrario asko izateaz gain gaixo-



JABONES DE GUARA

Potasa xaboaia, landareari kalterik egin gabe intsektuak akabatzeko bide onena.

tu ere egiten dira, gaizkitzeraino batzuetan... Ezagutzen ditugun neurrian bere ahulgune horietan zorrotz jo dezakegu: gaitzen bat sortuko dien bakterioa edo birusa zabaltzen badugu, atzera egin behar izurriteak!

Gure etekinen zaintzan makia-velikoagoak izaten ere badakigu. Izurrite batzuk laborategietan deuseztatzen adibidez. Espezie kaltegarriaren izurritearen indarra ugalkortasun oparoan oinarritzen bada –urtean bost belaunaldi hazteko gai den zorririk bada...– izu-

ria makaldu eta bere kaltea hutsaren hurrengoratzeko, antzuak diren arrak sortu eta erruz hedatzen dira. Ar horien proportzioaren arabera jaitziko da ugalkortasuna. Bururazten dira bai honelako trikimailuak...

Makiavelo, laborategi eta trikimailu handirik gabe ere intsektuak gibelerarazi ditzakegu. Xaboiarekin esaterako, erraz asko. Potasa xaboaia da onena. Lan-

dareei kalte arrastorik ez eta izurritea ito egingo du. Ia intsektu guztiek azalean dute eskeletoa, armazoi eta babes den exoeskeletoa. Xaboiak eskeleto hori kaltezen du eta arnasa hartzea zailduz hil egingo du. Hori da garbitzea, xaboz garbitzea...

Intsektuei aurka egiteko erabiltzen dugun edozein gairi xaboi hori nahastea komeni da. Kolpea latza izango da. Xaboaia eta gai kaltegarria, bikoitza. Bik adina. Bikaina. ■



Minutu bat, egun bat

Minutua joan eta minutua etorri, eguna joan eta eguna etorri, gure nekazaritza pobretzen ari da, gure herria txirotzen ari da. Europar Batasunean minuturo familia batek laborantza uzten du. Euskal Autonomia Erkidegoan egunero familia batek nekazaritza uzten du. Gure paisaia biziaren aldeko lana berritzen al dugu, bestela porru-hazi ederrak aterako ditugu... ■



Babeslea: ALKARTASUNA, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Erosi gure produktuak online
2013ko EGUTEGIA SALGAI

T 943 361 114 · alkartasuna@usurbil.com · www.alkartasunausurbil.com